


Arrate Rodriguez Azalaren egilea

1984an Erreterian jaioa. EHU-n Arte Ederretan lizentziatu ondoren, Il·lustració Creativa graduondokoa burutu zuen Bartzelonako Eina (Escola de Disseny i Art) eskolan. Arte-ekintzaile eta aktorea moduan ere ikusi dugu lanean azkenaldian, tartean Zuloak dokumentalean.



Kepa Iturralde °

Aldiri, 2013, II. 14. 3. ISSN 1889-7185

Jasotze-data: 2013-03-05 / Onarpen-data: 2013-04-05

Hainbat ekimenetan parte hartu duzu azkenaldian. Nola definituko zenuke zeure burua?

Ironikoa bada ere, ilustratzaile bezala definitzen naiz, nahiz eta momentu honetan beste lan batzuekin nabilen.

Hendaian bizi zara egun, azalean eragina izan ote du?

Ez dut uste eraginik izan duenik. Nire bizioa erretratua da. Eta erretratuak egiten ditut gehienetan. Normalean jendeak pentsa dezake erretratua pertsona baten aurpegia bakarrik dela. Nire ustez, erretratuaren bitartez, giza gorputzeko edozein atal irudikatu daiteke. Kasu honetan giza gorputza arkitektonikoki azaldu nahi izan dut.

Gorputzaren errepresentazio arkitektonikoaz ari zara.

Normalean oso organikoki marrazten dut. Lerro zuzenak ez ditut egiten. Eta azal honen kasuan oraindik eta haratago joan naiz, dena orbain bitartez egitea izan da helburua. Mantxa bitartez egitea, eta nahiz eta testura eduki, masa moduan azaltzen dira. Are gehiago, dardara gabe marraztu ditut, entitate plano eta sendoak izango balira bezala.

Gorputza euskarri moduan.

Gorputza marrazteak egiten didan ekarpena, bodegoi batek ez dit egiten. Arrazoi nagusia da erretratuan irudikatzen diren bolumen horiek bizirik egotea. Gorputzeko edozein atal ateratzen dela ere, beti bizia dauka atzean. Garrantzizkoa ikusten nuen eraikinik ez azaltzea, nahiz eta Arkitektura eta Hirigintzari buruzko aldizkari baten azala izan.

Nolabaiteko simetria bat ere bilatu duzu.

Azal honetan, ente horiek bi eraikin izango balira bezala azaldu nahi izan ditut, baina gorputzen bitartez irudikatuak. Normalean marraztean ez naiz batere erregularra, eta simetria organikoa planteatu dut, ez da simetria perfektu bat, azken finean bi gorputz ezberdin dira eta bakoitzak bere berezitasu-



Irudia: Ibai Gandiaga

nak ditu. Organikoak dira gorputz horiek eta ondorioz ez dira sekula berdinak izango.

Janzkeragatik eta gorpuzkeragatik elkarrekin dabilen bikote arrunta dela esan daiteke.

Turismoaren klitxe hori horrela irudikatu nahi izan dut, nolabait jende arruntaren zeregin moduan. Udako eguzkia eta hondartza dira klitxe horiek, argi dago. Neroni ez dit batere interesik pizten behintzat turismo mota horrek, baina oso tipikoa da. Eta tipiko edo topikotasun hori azaldu nahi nituen. Bikote homosexual bat eskutik helduta jarriko banu, edota arraza desberdineko bikote bat, egoera horrek toki konkretu batekin lotzera eramango gintuzke. Esate baterako, bi gizon elkarrekin agertuko balira, pentsa daiteke, bada hauek konkretuki Sitges-en daude. Eta ez zen helburua. Zerbait orokorragoa bilatu nahi nuen, udako eta udatiarren topikoetan barrena ibiliz.

Udan Hendaian hori bera ikus dezakezu?

Udan, bai, ze neguan kalean katurik ere ez dabil. Bada gauza bat nabarmendu daitekeena, EHko beste hondartzekin konparatuz. Bertan arraza-nahasketa gehiago topa daitekeela esango nuke. Gipuzkoa eta Bizkaiko hondartzetan, beharbada, ez dira etorkinak nabari, eta ikusita ere, ez dira bertako jendearekin harremanean nahasten.

Zein teknika erabiltzen duzu normalean?

Azkar marraztea gustatzen zait eta akuarelak hori ahalbidetzen du. Akatsa, ikusi egiten eta «tita» lan egin beharra izaten da kasu hauetan. Askotan lehortzeko pazientzia gutxi ere izaten dut. Enpastatzen eta erretokatzen ibiltzea denbora galtzea izan daiteke batzuetan, eta nik nahiago izaten dut freskotasuna lortu.

Zure lanak non aurki ditzakegu?

Oraintxe bertan harrapatu nauzu azken lanak igotzen, honako helbidean: www.behance.net/Alice_in_citta

° Kepa Iturralde arkitektoa eta EHUko ikertzailea da.

